



## **ALKATETZAREN MEMORIA: 2019KO AURREKONTUAK**

Dokumentu honetan, eta indarreko legediak ezarritakoa betez, hark behartzen baitu azalpen-testu hau Udal Aurrekontuko onarpen-espeditentean txertatzera, azpimarratzen dut zein diren Aurrekontu-Zirriborroaren kontu aipagarrienak, bai eta udal taldeekiko negoziazioen egoera ere; izan ere, negoziazio horiek ezinbestekoa dira ez bakarrik Gobernu talde honek agintaldi osoan erakutsi duen borondateagatik, baita Udal Aurrekontuak onartzea bermatzeko laguntza nahikoa izateko beharregatik ere, eta, hala, funtsezko kudeaketa-tresna izan dadin herriaren eta herritarren egoera hobetzeko, ezarritako helburuak oinarritzat hartuz.

Dokumentu honen hasierako zenbatekoa 37.147.467'54€-koa da; 2018ko proposamenarekin alderatuz gero —31.366.142'31€-koa zen hura—, % 11,7ko igoera dakar, eta, azkenean onartutako proposamenarekin alderatuta, 32.357.193'19 €-koa, igoera % 11,4koa da.

Iazko urtearekiko igoera hau, 1,2 milioi eurokoa, nagusiki, Foru Funtzaren jokaera on batek eragin du, eta aurreikusten da 1 milioi bat euro gehiago bilduko direla, hirigintza-aprobetxamenduetan eta obra-lizentzietan, sektorearen susperraldiak hala eraginda.

Egoera makroekonomikoaren hobekuntza honek aukera ematen digu, oro har, gauzak egiteko gaitasun handiagoa eta are zorpetzeko ahalmena handiago izateko, eta kaudimenez eta berme guztiekin aurre egiteko Aurrekontuaren 4,5 milioiko igoera horri; hala, gure kezka nagusia izango da egoera ahulean dauden familiei eta pertsonei laguntzea, garapen ekonomikorako neurriak sustatzea eta hiri-inguruneak hobetzea, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko eta herria erosoago eta bizigarriago izateko.

Agintaldiaren azken urtean gaude eta, logikoa denez, beharrezkoa da haren bisio global bat izatea, puntu nagusietan bada ere. Lau Aurrekontutatik laugarrena da eta haien bitartez 2015eko maiatzean herritarrekin hartu genituen konpromisoak islatu nahi izan ditugu. Egia da ustekabeko inguruabar bat egon dela, eta da ezein partiduk ez duela gobernu-erantzukizunik bere gain hartu nahi izan, eta beste bati egiten lagatzeko erosotasunetik, kritika errazetik, blokeo estrategikotik eta, nahi baino gehiagotan, kalkulu elektoral eta alderdikoi batetik, eta ez herri-bisio batetik eta herritarren interesetik saiatu dira udal kudeaketa geldotzen, proiektuak zalantzan jartzen, ziurtasunean zalantza sorrarazten eta, hitz batean, Alkatetza eta Gobernu talde honen gaitasuna zalantzan jartzen.

Horregatik, lau urte hauetako lanarekin harro egon gaitzke. Urtez urte erakutsi dugu kudeatzeko eta akordioetara iristeko gaitasuna dugula. Aurreikuspenak betetzen badira, 2019ko Aurrekontuak onartuko ditugu berriz ere; alegia, agintaldiko lau urteetan



aurrekontuak izan ditugu herriaren alde lan egiteko. Eta hori ez da erraza gutxiengoan egonik. Bestela, galde diezaiotela Urkullu Lehendakariaren Eusko Jaurlaritzari, zeinak 2019an ez du aurrekonturik izan eta zailtasun handiak dituen hainbat neurri onartzeko, hala nola funtzionarioen soldata-igoerak edo gizarte-ekimenak.

Lau urte hauetan, Ordenantza Fiskalak izan ditugu, agintaldi osoan iraun duen izozte-proposamen batekin. Alegia, udal zergak eta tasak 2015ean bezala daude, Udalaren esku daudenetatik bat bera ere ez delako igo.

Egia da udal proiektu, ekimen edo konpromisoak martxan jartzeko orduan, zailtasunak sortu dituela oposizioaren jarrera horrek, baina betetze-maila eta, batez ere, eibartarrekin hartutako konpromisoak betetzeko uste sendoak bere horretan jarraitzen du eta, laster izango diren hauteskunderen aurrean, indartuta eta ilusioz beteta dator.

Eta laugarren agintaldi honetan, aurrekoen printzipio berberak jarraitu ditugu. Dokumentuaren ardatz nagusiak izan dira Hauteskunde Programaren, Gobernu Programaren eta Agintaldiko Planaren proposamenak. Baina, zalantzarik gabe, beste ekarpen batzuk ere egin dira, beste talde batzuekiko negoziazioetatik eratorriak, eta horiek ere gure herria kudeatzeko tresnaren parte dira: Herriaren Plan Estrategikoa, Kirolaren Plan Estrategikoa, Mugikortasun Plana, Garapen Ekonomikoa Zuzentzeko Plana, Aurrekontu Parte-hartzaileak, auzoetako bileretako proposamenak eta lehendik planteatutako proposamenetatik eratorritako ekimenak.

## **SARRERETAKO KAPITULUEN EGOERA**

Aurreko urteetan bezala, eta Udal Kontu-hartzaileak bere erantzukizun teknikoan jardunez ematen dituen gomendioen barruan, Ordenantza Fiskalak igotzea eta, horrela, diru-bilketa gehitzea eskatu bazuen ere, Udal Osoko bilkurak, Alkatetza honen eskariz, Ordenantzak bere horretan uztea erabaki zuen.

Egia da azken lau urte hauetan datu makroekonomikoen bilakabide positiboa erakutsi dutela, eta oro har ikusten da hazkunderen bidezidorean gaudela, beraz, krisialditik irteten. Egia da halaber mikroekonomiak, etxeko ekonomiak, familiek, pertsonak, oraindik ere beren eguneroko bizimoduan azken 10 urteotan bizi izan den krisialdi basati horren ondorioak pairatzen ari direna. Eta administraziook ezin gara geratu errealitate horretatik kanpo.

Horregatik, eta Udal Kontu-hartzaileak egindako proposamena egokia izan arren —berriro Ekonomia eta Finantza Plana egin beharrik ez izateko—, Udal Osoko bilkurak harrotasunez esan dezake agintaldi osoan kapaz izan dela Ordenantza Fiskalak bere horretan uzteko, izoztuta, familia-ekonomien errealitate horri laguntzeagatik, eta, hala ere, ez dela jaitsi eskainitako zerbitzuen kalitatea.



Ekonomia globalaren hobetze-prozesuak eragiten dio Administrazioen sarrera-gaitasunari, eta, dagokigun kasu honetan, toki-sarrerei eragiten die, eta onerako eragin ere.

Diru-sarrera guztien ikuspegi orokor batek —finantza-pasiboen IX. Kapituluak— sarreretan 3 milioitik gorako hobekuntza sumatzen uzten du; hau da, % 10,6 joan zen urtearekiko, 2018arekiko. Errealitate hori, ikusiko dugun bezala, gastu-ekimenak hobetzen islatuko da, gurea bezalako gizarte baten oinarritzko zutabeetan lanean jarraitzen utziko digun hobekuntza. Ekonomia, enplegua, gizarte-kontzientzia, hiri-hobekuntza, berdintasuna, kultura, kirola, baserri-mundua edo euskara gure gastu-estrategiaren parte izan behar dira, eta, horretarako, funtsezkoa da diru-sarreraren datu on horiek lantzen jarraitzea.

I eta III Kapituluak % 5 hobetu dira 2018ko urtearekin konparatuz gero, zerga batzuek portaera hobea erakutsi dutelako eta Udal honen diru-bilketa gaitasuna eraginkorra delako. Eta, batik bat, I. Kapituluak, zuzeneko zergenak (OHZ, JEZ, ibilgailuak edo Plusbalioak).

Kapitulu bi horiek —I. kapituluak, hala ere, eragin gehiago du— 9,8 milioi euro dakartzate, hau da, diru-sarrera guztien % 30 inguru (IX. Kapituluak kontuan hartzeke), beraz, horien eragina estrategikoa da Udalaren finantza-osasunean.

Baina, zalantzarik gabe, IV. kapituluak (Transferentzia Arruntak) da giltzarria etorkizuneko proiektuei eta Eibarko gizartearekin ditugun konpromisoei finantza-kaudimenaz aurre egiten utziko digun sarrera-gaitasuna bermatu ahal izateko. IV. Kapitulu honek 21,6 milioi euro hartzen ditu, beraz, diru-sarrera guztien ia % 65, finantza-pasiboen IX. Kapituluak kontatzeke. Dena dela, eta aipatu berri dugun Kapitulu hori modu xeheagoan aztertuta, ez dago zalantzarik: giltzarria Udal Finantzaketarako Foru Funtsa da. Funtse hori udalerriei dagozkien ekarpenek osatzen dute, Gipuzkoako Foru Aldundiak duen zerga-bilketaren arabera egiten diren ekarpenak. Termometro ona izaten da Gipuzkoako ekonomiaren eboluzioa kalibratzeko; eta azken urte hauetako datuek gure ekonomikoaren hobekuntza progresiboa islatzen dute, datu makroekonomikoei dagokiela.

2018. urtean ere % 3,8ko igoera planteatu zen 2017koarekiko; 700.000 euro gehiago, alegia. Hala bada, 2018ko likidazioak 600.000 euro gehiagoren aurreikuspena egiten du hasierako aurreikuspen horrekiko, eta 2019 jardunaldirako % 6,5aren igoera islatzen du joan zen urtean aurreikusitakoarekin konparatuta.

Ia 19,3 milioiko kopuru batez ari gara berbetan, Udalak aurreikusitako diru-sarreraren ia % 58. Beraz, esan beharrik ere ez dago herriaren Diru-sarreraren Egoerari begira, diru-kopuru aldetik ekarpen handienaren aurrean gaudela.



Kapituluko desglose honetan VI. Kapituluauren aurreikuspenaren hobekuntza azpimarratu behar da, Egiazko Inbertsioen Besterenganatetik eta hirigintza-jarduketetatik eratorritako beste sarrera batzuetatik datorrena. Kapitulua hori obra-lizentzia eta herrian egiten den jarduera pribatutik sortutako hirigintza-aprobetxamenduena da. Krisialdiarekin Kapitulua hori ia ezerezean geratu zen, baina ekonomiak gora egin ahala berriro ere islatzen hasi da udal sarreretan.

Errekatxu, Estaziño kalearen ostea, Blas Etxeberria, Otaola hiribidea: jarduketa horiek kontzeptu horren sarreretan gorakada handia ekarriko dute 2018 urtearekin alderatuz gero.

Kapitulua honek jasotzen ditu sartzea aurreikusten diren zenbatekoak, Udala honek duen ondare eskuragarriaren eta horren erabilera zehatzen emaitza.

Bestalde, Kapital Transferentzien VII. Kapitulua, hau da, Udalaren proiektuetarako beste erakunde batzuek ematen dituzten dirulaguntzak jasotzen dituenak, igoera handiko aurreikuspena dakar, batik bat, SPRIak ia 75.000 euroko laguntza emango duelako Azitaingo Industrialdearen asfaltatze-lanetarako, eta 300.000 euroko beste bat iritsiko delako Jardiñetako igogailua egiteko Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailetik.

Azkenik, joan zen urteko Memorian aurreratu genuen bezala, finantza-pasiboen IX. Kapituluari behar duen zenbatekoa eman behar zaio Aurrekontua orekatzeko diru-sarreretan eta gastuetan. Eta hori horrela da, Udalak bere funts propioak eta finantza-osasun inbidiagarria eduki arren, aurrekontuaren teknikak ez duelako uzten bitarteko horiek erabiltzen aurrekontua egiterakoan. 2018an iragarri genuen bezala, ez dugu izan aurrekontuan jasotako kreditua eskatzeko premiarik, eta ikusiko dugu 2019an zer gertatzen den, baina, edozein modutan ere, zenbateko horiek bezalako finantza-pasiboei aurre egiteko moduan gaude, zalantzarik gabe.

## **GASTUEN EGOERA**

Memoria honen atariko zatian aurreratu dugun bezala, azkenean, proiektu honek 2018koarekiko duen hazkunde-aurreikuspena % 11,4 inguruan finkatu da. Erronka handi baten aurrean gaude: herri egiten jarraitzeko erronka, pertsonentzat pentsatutako herria, gestio-eremu bakoitzean hiritarren premiei erantzuneko dien herri atseginagoa eta modernoagoa. Helburu horrekin egin da Aurrekontuen proposamen hau.

Aurrekontu-teknikak Udala Aurrekontua kapituluan eta funtzionaltan egituratzera behartzen du, eta horri, erabilitako terminologia tekniko eta, batzuetan, gastu batzuk herritar ororen logikarekin beti bat ez datozen programetan sartzen direla gehitzen badiogu, azkenean ulertzen zaila den dokumentu bat ateratzen zaigu.



Horrexegatik hain zuen ere, 2018ko Memorian abiatutako ildoari jarraituz, eta eibartarrei, bai planak eta proiektu estrategikoak nahiz beraiekin hartu genituen konpromisoak modu errazago batean identifikatzen laguntzeko, egokiagoa iruditu zait Aurrekontuen zirriborro honetan gastu-ahaleginak zutabeka edo ildo estrategikoen arabera sailkatzea.

Niretzat eta Gobernu Taldeko gainerako kideentzat honako hauek dira lehentasunezko arloak edo helburuak:

### **EKONOMIA- ETA ENPRESA-GARAPENA, BERRIKUNTZA ETA ENPLEGUA**

Udalaren ikuspegitik, batzuetan zaila izaten da “erantzukizuna” eta “eskumena” kontzeptuak bereiztea: erakunde bakoitzak bere betekizunak garatzeko orduan esleitua duen eskumen-esparruaren barruan, Udalaz gaindiko erakundeen eskuetan daude ekonomia-garapena, formazioa, enplegua, berrikuntza eta industria-politikari dagozkienak, baina Udalak —herritarrengandik gertuen dagoen instituzioak— erantzukizun itzela du; erantzukizun hori guk geure gain hartzen dugu eta horrekin konprometitzen gara, jarrera proaktibo eta proposamen-egile batekin eta murgiltzen garen ingurune ekonomikoa hobetzeko helburu argi eta garbiarekin; hartara, sektore ekonomikoei erramintak emango dizkiegu eta gure enpresak hobetzen lagunduko duen ekosistema produktibo bat abiarazi, beste enpresa batzuentzat ere deigarri izango dena, denon artean aberastasun handiagoa lor dezagun; azken finean, enplegu gehiago eta enplegu hobea sortzen zuzeneko eragina izango duen aberastasuna.

Garapen Ekonomiko arloa Udalaren antolaketa-egitura barruan txertatu genuen, hain zuzen ere helburu hori modu efikazagoan eta efizienteagoan bere ahal izateko; eta arlo horri giza baliabideak eta bitarteko ekonomikoak eta estrategikoak eskaini dizkiogu industriaren alorrean, merkataritzaren sektorean, formazioaren eremuan, berrikuntzaren eta ekintzailatzaren esparruan eta azpiegiturretan dinamikak ezar ditzan. Garapen Ekonomikoko sailari ezarri zitzaion beste egitekoetako bat konplizitatea bilatzea izan zen, beste instituzio batzuk animatzea eta instituzio horiei laguntzea beren dinamika propioetan; betiere Eibarrentzat eta Debabarrena eskualdearentzat onura bila.

Lehenxeago esan dugun moduan, Dokumentuaren egiturak berak batzuetan zaildu egiten du helburu horrekin lotutako partida ekonomikoak bilatzeko lana; beraz, zaildu egiten du kuantifikazio zehatza.

Funtzional batzuk dira esparru horretako jarduketa nagusiak beren baitan hartzen dituztenak, hortxe dauzkagu “Enpleguaren Sustapena” 910.709,86 euroekin edo “Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutua” 1.439.614,80 euroekin; beraz, 2,7 milioi eurotik gorako konpromisoa Toki Administrazioetik herriaren egoera ekonomikoa hobetzen jarduteko, balio absolutuetan 480.000 eurotik gorako igoera eta 20 puntu portzental helburu berberera 2018an zuzendu zen aurrekontuarekiko, Gobernu Talde honek gure herriaren garapen ekonomikorekin duen konpromisoaren erakusgarri eztabaiaezina, sektore ekonomikoekiko nahiz hiritarrengan duenarekiko.



Enplegu-sustapenaren atalean azpimarratzekoa da Udalak abian jarri dituen formazio- edo prestakuntza-izaerako ibilbideak, toki-erakundeei egindako deialdiaren barruan, Europako Gizarte Funtsaren laguntzaz kofinantzatutakoak (POEFE laguntzak). Laguntza horiek, gizarte inklusioaren esparruan, pobreziaren eta diskriminazioaren aurkako borrokan kolektibo zaugarrienetako pertsoneri begira egiten diren proiektu edo asmoetarako izaten dira. Garapen Ekonomikoko Sailak Udal honetako Osoko bilkurari egindako proposamen baten bitartez, 756.887 euroko aurrekontu-kontsignazio bat onartu zen datozen hiru urteetan 100 ikasle ingururi formazio edo prestakuntzako 5 programa emateko. 2019ko jardunaldi honetan Aurrekontuan 187.500 euro sartu dira, esandako 5 programa horietako bi martxan jartzeko.

Bereziki aipagarriak dira enpresei ematen zaizkien dirulaguntzak, ekintzak egiteko laguntzak, bai enplegarritasuna hobetzeko, bai kontratazioak egiteko. 2019an 140.000 euro jarriko ditugu horretarako, eta zenbateko horretatik 40.000 Formazio Dualeko programa finantzatzeko izango dira, eta gainerako 100.000 euroak Eibarko enpresek lanik ez duten pertsonak kontrata ditzaten laguntzeko erabiliko dira.

Partida biok ekimen-multzo koherente baten parte dira, elkarri lotutakoak eta elkarren artean zerikusia dutenak, elkar lanerakoak, helburu bakar hau xede eta aldarriz: jarduketa-alderdi askotatik arituta sor daitezela lanpostu gehiago, eta presta ditzagula gure herriko langabeak lanpostu horietarako.

Enpresa-garapenari eta berrikuntzari dagokienez, lehendik ere ezagunak diren ekimenak dauzkagu, arrakasta handia lortu dutenak: Pymeendako laguntzak, enpresendako laguntzak erronka teknologikoei aurre egiteko, elkarlana Ekingunerekin, toki-garapena dinamizatzeke planak, merkataritza-sektorea biziberritzeko ekimenak, Toribio Echeverría sarien koantolaketa edo ekintzaileei laguntzeko programak. Baina horiez gain, jardunaldi honetan, 100.000 euro ipinita, martxan jarri nahi ditugu beste ekimen berri bi: aurrena, gure herrian erdigunetik urrunago dauden guneean merkataritza indartzeko eta dinamizatzeke ekimena dugu, Eibar Merkataritza Gune Irekiarekin elkarlanean egingo dena; eta hurrena, kirolaren esparruan ezagutza eta berrikuntza sustatzeko, hub edo operazio-zentro bat sortzea, kirol-erakundeak, enpresa liderrak, ikerketa-zentroak, unibertsitateak, ekintzaileak eta start-upak elkarrekin konektatuko dituen ekosistema bat.



## **GIZARTE-EKINTZA**

Memoria honen hasierako zatian aipatu dudan bezala, orokorrean egoera makroekonomikoak hobera egin badu ere, oraindik ere krisialdiak presentzia handia du eibartar askoren bizitzan. Egia da halaber, azken helburua edozein pertsona bere baliabide propioekin, kanpoko tutelarik eta laguntzarik gabe, bere bizi-proiektua garatzeko gauza izatea bada ere, pertsona askok ezin dutela hori egin eta babes, laguntza eta sostengua behar dutela. Errealitate horren aurrean, alkate hau, gobernu-zereginetan laguntzen didan gizon eta emakumeen taldea, eta udal plantilla oso sentibilizatuta gaude; baina ez hori bakarrik, kontzientziatuta eta konprometituta ere bagaude Gizarte Ekintzaren alorrean beharrezkoak diren neurriak, ekimenak eta gestioak martxan ipintzeko eta aurrera eramateko gauza izan eta gaitasuna izan dezagun, Eibarko bizilagun guztiek bizitza duin eta gizartean zeharo integratua izan dezaten.

Orain dela gutxi jakin izan dugu, Eibarren, bigarren urtez jarraian, estatuko rankingaren lehenengo postuetan gaudela gizarte-inbertsioan. Estatuko Gizarte Zerbitzuetako Zuzendarien eta Gerenteen elkarteak laugarren lekuan jarri gaitu Espainian 20.000 biztanletik gora dauden 404 udalerrien artean udalek “Gizarte Zerbitzuak eta Gizarte Sustapen”era zuzentzen dituzten aurrekontuen inguruan egin duen txostenean, eta,aldi berean, elkarte horrek berriaz aitortu du inbertsio soziala goratzearen alde egiten dugun apustua eta gure herritarrei gizarte-zerbitzu duin eta kalitatezko batzuen bidez atenditzeko dugun bokazioa.

2019 honetan, Udal Aurrekontuaren igoerak ekintza-gaitasun are handiago bat ematen digu eta zailtasun handienak dauzkaten familien eta pertsonen egoeran nahiz arazo edo/eta mehatxu berriei aurre egitean modu are positiboago batean eragin ahal izateko modua.

Gizarte Larrialdietako Laguntzak izango ditut bereziki hizpide, garrantziagatik, eragin zuzenagatik eta medioetan islagatik. Eibarko Udalak, joan zen 2018. urtean, 617 eskabideri erantzun zien Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan, eta onuradunei emandako dirulaguntzetan erabili zuen zenbatekoa 488.277 eurokoa izan zen; beraz, atenditutako eskaeretan nahiz inbertitutako diruan, 2017ko urtearen antzeko zifrak (2017an 606 eskaera jaso ziren, eta ahalegin ekonomikoa 485.229 eurokoa izan zen). Zoritxarrez, datu horiek —datu ondo ezagunak Gizarte Larrialdietako Laguntzen eskumen eskusiboa esleitua duen Administrazioarentzat, hau da, Eusko Jaurlaritzarentzat— aurtengoan ere ez dute balio izan transferitu diguten diru-zenbatekoarekin darabiltzadan aurreikuspenen arabera 2019an egingo diren eskaera guztiei kasu egiteko behar den zenbateko horretara hurbiltzeko, ezta hurrik eman ere. Aurtengoan ere, beste behin, ez da izango nahikoa, nabarmenki.



Arrazoi horrengatik, eta baliabiderik ez dagoela-eta laguntza-eskaera bat bera ere erantzuteke ez uzteko dugun konpromiso irmoari eutsiz, laguntza aitortu izan zaion pertsona hori ez dadin izan Eusko Jaurlaritzak hain kontu labainean egindako gestioaren akatsen ondorioak pairatuko dituen, 2019ko Aurrekontuen proposamenean 475.687 euroraino heltzen den partida bat sartu dugu, Erkidegoko Administrazioak horretara zuzendutako partida Gizartekintza Sailak egindako prebisiara iritsi arte gure diru-baliabideekin osatuta.

Baina hori baino askoz gehiago dira Udaletik jarduten diren gizarte-geruzak. Era horretan, arreta berezia eskainiko diegu arrisku-egoeran edo babesik gabe dauden pertsonak laguntzeko programa bakoitzari, eta 2019. urtean 250.000 euro baino gehiago zuzenduko ditugu egiteko hauetan: gizarte-bazterkeria egoeran dauden helduentzako laguntza sozioedukatiboko programa; familia esku-hartzeko programa (arrisku-egoeran dauden adin txikiko familiei laguntzeko, beren gaitasuna eta trebezia landu eta indartu dadin arazoei modu efikazean aurre egiteko; eta, hartara, hartu-emanen kalitatea eta elkarbizitza hobetu, bai familia barruan, bai ingurunean), adin txikikoendako ingurune zabaleko hezkuntza-programako hezitzaile adituekin (erramintak eta trebeziak eskaintzea bazterkeria-egoeran dauden gazteei integrazio soziala eta komunitarioa erraz diezazkieten). Apustu horiek guztiek gure helburu nagusi hau lortzen laguntzen dute: pertsona guztiak komunitatean erabat integratzen direla bermatzea, elkarbizitza normalizatua eraman dezaten lagunduz eta horretarako behar diren bitarteko guztiak beren esku jarriz.

Kultura-aniztasuna, immigrazioa, genero-berdintasuna, Gizarte Zentroekin elkarlanean aritzea, Garapenerako laguntzak eta GKEkin batera lanean aritzea, edo osasunarentzat arrisku-jokabideak prebenitzea —batik bat, drogen eta alkoholaren nahiz tabakoaren ondorioei dagozkienak, adin txikikoen prebentzioari arreta berezia jarriz, bide horiek har ez ditzaten—, arlo horiek guztiak ere gure ekintzen ardatz dira, eta horien aurrekontu sektoriala 3.750.000 euro ingurukoa da, beraz, joan zen jardunaldiarekin konparatuz % 13,5etik gorako igoera; 2018ko igoera hura ere, 2017koarekin alderatuta, % 10etik gorakoa izan zen.

## **BIZI-KALITATEA**

Duda barik, Aurrekontu hau oso tresna garrantzitsua izango da Hiri globalaren gure proiektua gauzatzeko, zeinak helburutzat duen pertsonengan pentsatutako Hiri bat egitea. Horretarako, Aurrekontu-proposamen honetan jaso ditugu hiri-inguruneak hobetzeko proiektuak, irisgarritasun-egitasmoak, oinezkoentzako segurtasun-planak eta zerbitzu publikoen eskaintza hobetzekoak, guztiek ere gure herritarren bizi-kalitatearen hobekuntzan eragingo dutenak, Eibar hiri modernoago, osasuntsuago eta jasangarriago bat eginez.





Urtez urte, gure herriaren hiri-inguruneak hobetzea da gobernu-taldearen jardunaren ardatzetako bat. Herritarren eskariak errealitate bihurtzeko egiten dugu lan eta, horretarako, urtero, Udalak diru-kopuru garrantzitsu bat bideratzen du herriaren eraldatzean inbertitzeko, hala premia horiei erantzuna emanaz. Aurten, proposamenean jasotako inbertsio-bolumena nabarmen altuagoa da: 2018ko kontuetan 5,5 milioi esleitu ziren eta aurten 7,8 milioi izango dira. Termino absolutuetan, 2,3 milioi euroko aldea, hau da, % 40tik gorako igoera erlatibo bat.

Alabaina, uste dut Udalak ez duela bide hori bakarrik egin behar, eta, zorionez, gainerako administrazio publikoek gure xedea partekatzen dute eta ekarpenak egingo dituzte, Eusko Jaurlaritzak Azpiakutuen Ospitalea martxan jarrita egin zuen bezala, eta orain ere egiten ari den moduan, bere eskumenen baitan, Txontako berroneratzea bultzatzeko eta ekonomikoki laguntzeko. Foru Aldundia ahaztu gabe, Mugikortasuna eta Antolaketa sailaren ekimenez, eibartarren eskari historiko bati erantzun behar dio-eta: Eibar Elgoibarrekin lotuko duen Bidegorria, proiektu estrategikoa herriarentzat, ia 5 milioi euroko inbertsioarekin laster adjudikatuko dena eta, aurreikuspenak betetzen badira, urte eta erdi baino gutxiagoan amaituta egongo dena. Ekimen pribatuak ere, hala egitasmo urbanistiko batzuetan nola maila indibidualean, zein bere testuinguruan, xede horretan aurrera egitea ahalbidetuko du.

Hasi berria den urte hau, udal mailan, Errebal Plazia funtzio anitzeko ekipamenduaren obrak berriz ere hasiko diren jardunaldia izango da: joan den urtarrilaren 3an proiektu eraberritua gauzatzeko obra lizitaziora irtenda, eta proposamenak aurkezteko epea amaituta, hamaika izan dira adjudikazioan lehiatuko diren enpresak. Datozen egunotan ekingo zaio proposamenak aztertzeari, eta otsailaren amaieran bilduko da kontratazio-mahaia, enpresa horietako bati obraren adjudikazioa proposatzeko. Aurrerago, martxoan zehar, egingo da behin betiko adjudikazioa.

Errebal Plazia obraren lizitazio-aurrekontua 6.399.497,98 euro dira guztira (BEZa barne); horietatik 3.032.500 euro aurtengo Aurrekontu Proposamenean aurreikusi dira, eta gainerakoa hurrengo urteetan. Gauzatuko den proiektu eraberrituak hobekuntzak jasoko ditu, ahalbidetuko dutenak eraikina Eibarrek egun dituen beharretara egokitzea, inguruko zerbitzuekin koexistentzia gune bat sortuz.

Errebal oso garrantzitsua izanik ere, ez da izango, ezta gutxiago ere, gure esfortzuen ardatza ezta Obra saileko aurrekontuaren hartzaile bakarra ere: urtero bezala, eta Eibar herri erabat irisgarria izan dadin eta hiri-ingurune hobetuak izan ditzan, kopuru handi bat bideratu dugu bi kontzeptu horietara: 2 milioi euro, seguru asko, gehiago izango direnak urtean zehar. Askok dira atal honetan aurreikusitako proiektuak: Ubitxa-San Kristobaleko irisgarritasuna eta Arratebidekoa (partzelaren berrurbanizazioarekin osatuko dena) hobetzeko proiektuez gain, hainbat igogailu eta pasarela eraikiko dira, hala nola Torrekua Berdintasunaren pasealekuarekin lotuko duten igogailuak, Jardiñeta 29-31 eta 33-35ko igogailuak edo Azitaingo tren-geralekuko pasarela. Hiri-inguruneen hobekuntzaren atalean, honako egitasmo hauek nabarmendu behar dira: Mekola-San Juan pasealekuaren berrurbanizazioa, Fermin Calbetón kaleko

koexistentzia-proiektua, Mutiola kaleko urbanizazioa, Bustinduitarren espaloien birmoldaketa, Barrena 21-23 zenbakietako eta Mekola 8ko zoladura-obrak, eta Saratsuegiko parkearen zoladura konpontzea, bai eta haurren jolastokiak hornitzeko planak ere.

Hiria hobetzeko plan horietarako, beti hartu dira aintzat herritarrak, haiek baitira herriaren egunerokotasuna bizi dutenak eta antzematen dituzten gabeziak Udalarri helarazi diezazkioketenak. Horretarako, aurten, beste behin ere, 800.000 euroko partida bat esleitu dugu, prozesu parte-hartzaileen bidez, jakiteko zer ekintza egitea nahi duten herritarrek hiri-ingurune bakoitzean.

Baina hiri-espazioen konfigurazio egokia, hiriaren kalitatea, gure kaleak eta parkeak edertzeko ildo ezagunean lanean jarraitzea, hori guztia ezin da inbertsioekin bakarrik lortu. Beharrezkoa da esfortzua egitea gauzak mantentzen eta zaintzen, eta horretan beti egin dugu ahal izan dugun guztia hiri-mantentze eraginkor eta efizientea bilatzeko. 2018an ia 5 milioi euro bideratu genituen helburu horretara, zeinaren baitan sartzen diren bai kale-garbiketa bai hiri-altzarien mantentzea, kaleetako argiteria, parke eta lorategiak edo udal eraikin guztiak.

Idatziz jasota utzi nahiko nuke baita aurten hasiko dugun jomuga garrantzitsu bat, zeinarentzat 100.000 euro jarri ditugun: Hiri Antolaketako Plan Orokor berri bat idazten hastea. Gaur egun indarrean dagoen Plana 2008an onartu zen, beraz, higiezin burbuila lehertu eta finantza-krisialdiaren aurreko urteetan egindakoa dugunez, jarduketa batzuk garatu ezinean geratu dira, eta beste hainbat eta hainbat berriro pentsatu eta definitzeko premian daude. Esan dudan bezala, 2019ko Aurrekontuen proposamenean 100.000 euroko partida bat sartu dugu HAPO berriaren Aurrerapena egiteko.

Baina hiri-espazioen konfigurazio egokia, hiriaren kalitatea, gure kaleak eta parkeak edertzeko ildo ezagunean lanean jarraitzea, hori guztia ezin da inbertsioekin bakarrik lortu. Beharrezkoa da esfortzua egitea gauzak mantentzen eta zaintzen, eta horretan beti egin dugu ahal izan dugun guztia hiri-mantentze eraginkor eta efizientea bilatzeko. 2018an ia 5 milioi euro zuzendu genituen helburu horretarako; hor sartzen ziren kale-garbiketa, hiri-altzariak mantentzea eta berriztatzea, LED argiterian egindako inbertsioak, kale batzuen asfaltatze-lana, parkeak eta lorategiak, umeendako jolastokiak edo udal eraikin guztiak; aurten, 2019an, zenbateko hori 5 milioitik gorakoa izango da da, eta irispide mekanikoen prebentzio- eta zuzentze-mantentzeko partidak % 30etik gorako igoera izan du. Geroxeago ikusiko dugun bezala, 2019ko Aurrekontua onartzeko lortu den akordioak eragina izango du atal honetan.



## **BESTE ARLO AZPIMARRAGARRI BATZUK**

Memoria honen hausnarketak Udal honen kudeaketan oinarrizkoak diren hiru zutabe hauetan funtsatu dira: Garapen Ekonomikoa, Gizarte Ekintza eta Hiri Kalitatea. Baina horiek baino askoz gehiago dira Udal honetako eguneroko zeregin horretan egiten diren ekintzak, eta ekintzok gabe ez lirateke garbi ikusiko herriaren aldeko konpromisoak eta herrian egiten diren ahaleginak beren osotasunean.

Coliseo Antzokia, Portalea, Museoa, Musika, Antzerki Jardunaldiak, Liburutegia, Jaiak eta beste hainbat eta hainbat jarduera biltzen ditu bere baitan Kultura Arloko Sailak, eta 2,5 milioi euro inguru jartzen ditugu horretan, herriko elkarteekin elkarlanean arituta, Kultura izan dadin gure gizartearen sozializazio-, integrazio- eta hazkunderraminta.

Euskarak, Ingurumenak eta Gazteriak aurrekontuan milioi 1 euroko partida funtzional zehatzak badituzte ere, beren garrantzia gainerako ekintzetan duten transbertsalitate horretatik datorkie. Esanguratsua da ingurumena babestera eta hobetzera zuzendutako zenbatekoak izan duen igoera, % 85ekoa, alegia. Ingurumen arloak azterlan eta lan tekniko garrantzi handikoak egiteko duen asmotik eta Eskola Agenda 21etik eratorritako egitekoen kopurua gehitzetik dator igoera hori.

Eutsi egiten diogu jabe erkidegoekin dugun konpromisoari fatxadak berriztatzeko eta igogailuak ipintzeko edo igogailu zaharrak kendu eta berriak ipintzeko eta pegoretako irisgarritasuna hobetzeko. Konpromiso hori sendotu egin da oraingo agintaldian, energia aurrezteko eta efizientzia energetikoa lortzeko neurriak hartzen dituzten birgaitze-jarduketak kontuan hartu eta zuzkidura handiagoa jaso izan baitute, izan ere, dirulaguntzak —2015-2019 Gobernu Programan islatutako konpromisoetako bat beteta— % 50ean gehitu baitira kontzeptu bakoitzean azken 4 urte hauetan zehar. Gainera, jardunaldi honetan, partida horri beste 35.000 euro gehiago sartu zaizkio, eta, dagoeneko, 200.000 euroko zenbatekora iritsi da, ez zifra makala.

Azkenik, azpimarratu behar da Udal honek funtsezko konpromisoa duela herritarrekin, eta hori argi eta garbi ikusten da herriko elkarteekiko hartu-emanen, erlazio hori ez delako harreman logistiko hutsera mugatzen, askoz harantzagokoa delako: alde batetik, gauzak erraztu nahi ditugu sozietate zibilak antolatu nahi dituen ekitaldi guztiak gauzatu daitezen; eta, bestetik, harreman ekonomikoa landu, Udalak herriko gizarte-sareari egiten dizkion diru-ekarpenek hiria hobetu eta biziagotu egiten dutelako.



Dirulaguntzez ari gara, kirol-entitateei, kultura alorrekoiei, auzoetako jai-batzordeei, GKE-ei, esparru sozial eta sanitarioko erakundeei, berdintasuna sustatzekoei edo euskara bultzatzekoei ematen zaizkienak, ia milioi erdi. Dirulaguntza horiek bere horretan zeuden krisialdiak hala behartuta, gastuari galga jarri beharrean geundelako, baina orain gehitu egin dira gure konpromisoa betez, hau da, Udalak gure herriko kolektibo soziokulturalei eta kirol arlokoiei ematen dizkien dirulaguntzak modu progresiboan eta puntualean igotzen joango da; eta, era horretara, hainbat esparrutan antolatzen dituzten jarduera eta ekitaldi oro babestu. Laguntza horiei 692.027 euro gehitu behar zaizkie, beren jarduera-programak garatzeko jasotzen dizuten dirulaguntza izendunak.

### **AURREKONTU-NEGOZIAZIOA UDAL TALDEEKIN**

Azaroaren erdialdean, udal taldeei Aurrekontuen zirriborroa entregatu eta azaldu ondoren, zuzenketa aurkezteko aldia ireki zen, abenduaren 21ean amaitu zena.

Nire asmoa beti izan da bide hau neuk bakarrik ez egitea. Eta ezagutzen nauzuenok badakizue paktu edo itun-zalea naizela, akordioetara heltzea nahi izaten dudala, proiektuak babes instituzional handienarekin atera daitezten. Ez bakarrik aurrekontu-akordio hau, amaitzeaz dagoen agintaldi osoa ere horren adibide garbia da. Nire iritziz, hiriaren interesagatik eta bertako proiektu estrategikoak garatzeagatik, positiboa da ahalik eta babes politiko handieneko oinarria izatea. Horretarako gauza izan behar dugu gure artean ditugun diferentziak bazter batean uzteko eta batera gatozen puntuak indartzeko, Eibar beste gauza guztien gainetik jarrita, hiriaren interes orokorra gainerako interes guztien gainetik ipiniz. Oraingoan ere gauza izan gara.

Udal Osoko bilkuran dauden 21 bozka posible horietatik 15 aldeko bozka duen dokumentua aurkeztu ahal izatea albiste benetan ona da Eibarko herritarrentzat, agiri honek lan handiko urte bat bermatzen duelako, hiria hobetzen jarraitu ahal izateko eta, orain dela 4 urte, Eibarko herritarren aurrean konpromiso batzuekin aurkeztu ginenean —bete nahi ditugun konpromisoak eta beteko ditugunak— geneuzkan erronka haiei aurre egiten jarraitzeko.

### **EIBARKO EH-BILDU**

Zuzenketa osoa aurkeztu zuen, beraz, taldeak berak baztertu zuen bere burua negoziazio-prozesutik, gure iritziz, zuzenketa oso bat aurkezten denean, praktikan, hasietatik bertatik ari zaielako ezetza ematen kontuei.

Joan zen urtean, Eibarko EH-Bilduk aurkeztutako zuzenketa partzialen agiria ez zegoen eginda akordioa bilatzeko erantzukizunaren ikuspegitik, beraz, ez zen izan aurrekontu-akordio batera iritsi. Hala ere, hura ez da eragozpen izan 2018ko jardunaldian zehar akordioetara heldu ahal izateko, eta horrek hauxe pentsatzera



narama: osoko zuzenketa bat aurkeztea gauden momentuagatik izan dela, hau da, agintaldi amaieran gaudelako; eta, hori guztia hauteskunde-estrategiaren barruan dagoela, eta, bestela ezin zitekeen-eta, zilegizkotzat jotzen dut baina ez arduratsutzat, lehen esan dudan bezala, herriaren aldeko interes orokorra gauza guztien gaineratik jarri behar delako, eta hain zuzen horrek hartzen du bere baitan, nola ez, interes alderdikoia alde batera uztea, batik bat horixe.

### **IRABAZI-GANEMOS EIBAR**

Zuzenketa oso bat eta zuzenketa partzialak aurkeztu ditu, 450.000 eurokoak, 2017an aurkeztutakoen errepikapena ia; eta orduko haiek ere 2017an aurkeztutakoak ziren, berdin-berdinak.

Lehenengo bilera hartan —2018an bezala— marra gorri bat sortu zen, konponezina, akordioa ezinezko bilakatu duena.

Irabaziren ikuspegitik, Eibarko Udalak pasadizokoentzako aterpetxe bat martxan jartzeko ardura hartu behar du bere gain. Horrela ez bada, ez dago beste ezer negoziatzerik. Gizarte Zerbitzuen Mapak zerbitzu hori eskualdeko zerbitzutzat ezartzen duela ikusarazten saiatu arren; aterpetxearen kokalekua eta hura martxan jartzea eskualdeko udal guztien artean hartutako erabaki bat izan behar dela azaltzen ahalegindu arren; eskualdean, Maparen zerbitzu guztiak —aterpetxe hau barne— ezartzeko lanean ari diren lan-mahai tekniko bat eta beste lan-mahai politiko bat daudela adierazi eta esan arren, mugiezina izan da Irabazi-Ganemos Eibarrerren jarrera; eta akordioa, ezinezkoa.

### **EIBARKO EAJ-PNV**

Zuzenketa partzialak aurkeztu zituen 3 milioi euro ingurukoak.

Gure ustez, Eibarko EAJ-PNV taldeak, joan zen urtean bezala, orduan ere akordio batera iritsi baikinen, erantzukizun- eta posibilismo-ariketa bat egin du.

Prozesu bizi baten ondoren iritsi gara hona, agian, denbora aldetik nahi genukeena baino zertxobait gehiago luzatu dena, baina horren garrantzi handiko gai baten ez dugu nahi izan korrika eta presaka ibiltzerik, izan ere, gaiak zehazten eta argitzen sartzen den denbora ez baita galtzen, ondo inbertitutakoa izaten da, horixe bera delako gero Aurrekontua gauzatzean irabazten dena. Beraz, nire ustez, merezi izan du denbora bat lanean eman eta akordiora heltzea.



Akordio honek berehalako ondorioa du Aurrekontuan: gastua 1.860.000 euroan gehitzea; eta baita lan-konpromiso batzuk ere, jardunaldian zehar zehazten eta burutzen joango direnak.

Lortutako akordioan islatutako proposamenak hiri-hobekuntzako ekimenetik hasi eta trafiko-aldaketetara, haurren jolastokietara, garapen ekonomikoarekin lotutako jarduketa batzuk sendotzera edo landa-ingurunean hobekuntzak egitera iristen dira; horietako gehienak talde biek 2018an sinatu zuten aurrekontu-akordio hartan jasota zeudenak.

Esan dezaket, eta konbentzimendu osoz esan ere, Gobernu Taldeak aurkeztutako Aurrekontuen proposamena ondo pentsatutako eta diseinatutako erraminta zela akordiora iritsi baino lehen ere, Gobernu Talde honek eibartarrekin hartu dituen konpromisoak beteko direla bermatzeko eta herriak jauzi kualitatibo bat emateko, hauxe baita lortu nahi dugun helburua: Eibar modernoago, atseginoago eta jasangarriago bat izatea, lan egin eta oraindik ere kalitate handiagoko familia-bizimodua eta bizimodu soziala garatzeko herria.

Eta esan beharra dago, baita, EAJ-PNV taldearekin udal ekimenaren hainbat arlori begira adostutako ekintza eta ekimen sorta hauek, 2019ko Kontuei berariazko babesa ematen diotenak, aberastu egiten dutela gure proiektua.

Azken finean, udal ekintzaren hainbat esparrutan islatuko diren ekimenak eta egitekoak, aurkeztutako proiektua aberastu eta sendotzen dute eta 2019ko Kontuei berariazko baietza eman diete.

Bigarren urtez jarraian, Udal Osoko bilkuran dauden 21 bozka posible horietatik 15 aldeko bozka izango dituen agiri bat aurkeztu ahal izatea pozik egoteko modukoa delakoan nago, itxura batean behintzat, zaila delako hauteskunde-hitzordurako 6 hilabete baino gutxiago falta direnean babesa eskuratzeko aukera izatea; eta, horrez gain, eibartar guztientzako albiste benetan ona delako.

Eibar, 2019ko otsailaren 8an.

ALKATEA

MIGUEL DE LOS TOYOS NAZABAL